

DIMENTSIO BIKOITZA

-I-

Bizitzari heriotza,
argitasunari iluntasuna,
amodioari gorrotoa,
ongiari gaizkia...

Heriotzari bizitza,
iluntasunari argitasuna,
gorrotoari maitasuna,
gaizkiari ongia...

Badago toki bat nonbaiten,
non aurkakoek bat egiten duten.
Gutxi ei dira ordea
hori ezagutzen dutenak.

Errealitatetik haratago
beste dimentsio bat dago,
gehienek antzematen ez dutena.
arretarik jartzen ez dutelako alegia.

(Ezezaguna)

Azkenean, hautsez betetako liburu zahar bat baino ez zuten aurkitu, horrenbeste misterioz, hainbeste urtez, liburutegiko gordailuan zegoen kutxan. Sorpresa, aldiz, geroxeago etorri zen, usain gogorreko animalia-larruz ondo baino hobeto babestutako liburu mardula aztertzean.

Bada, liburua oso-osoan zuri zegoen, letra bat bera ere jaso gabe. Horregatik, adar-jotze galanta zela pentsatu zuten hasieran. Hala ere, Bladi, kuriositatearekin baino amorru gehiagorekin, orriak banan-banan pasatzen hasi zen. Guztien harridurarako, liburuaren erdi-parean, eskuizkribu bat agertu zen, eta, bertan, mezu bitxi hori.

Zur eta lur geratu ziren han zeuden lau lagunak. Eskuizkribua nahiko egoera txarrean zegoen, baina argiro irakur zitekeen. Mezua bizpahiru aldiz irakurri ondoren, gizon bakartiaz gogoratu ziren denak, bai eta liburuzainak haren gainean inoiz esandakoaz ere.

Edonola ere, kutxa behar bezala zarratzeko astirik gabe, arrapaladan, berriro mahaietara egin behar izan zuten, liburu-zaina hurreratzen zegoela ohartu orduko.

– Baten bat al dabil hor? Zerbait behar izanez gero galdetu niri, baina zaratarik ez atera mesedez. Eskerrik asko.

Sarri egin ohi zuen bezala, hori esan eta gero, liburuzaina bere jesarlekura itzuli zen.

– Zer iruditzen zaizue kanpora irteten bagara? –galdetu zuen Malenek.

– Primeran, horrela lasaiago hitz egingo dugu-eta –Txominek.

Beñat ere bere lagunekin bat zetorrenez, liburutegitik atera ziren lau lagunak.

-II-

Liburuzainari entzundakoarengatik, itsasgizona zen gizon bakartia, Merkataritza Marinako kapitaina, hain zuzen. Itxura denez, jubilazioa hartu zuenetik liburu asko oparitu zion liburutegiari, denak ere itsasoarekin zerikusia zutenak.

Egia esan, lau lagunek gustuko zuten itsasgizon horren istorioa. Ikerketa-proiektuak hasi zituzteneko garaiak gogoratzen

zituzten, hartaz hitz egiten zuten bakoitzean. Izan ere, bekadun moduan hasi ziren laurak, tesia egiteko asmoarekin. Halatan, Txomin, euskal filologoa zen, Beñat informatikoa, eta Malen eta Bladi kazetariak. Bitxia badirudi ere, Malenek eta Bladik kafetegian ezagutu zituzten Txomin eta Beñat, eta ez liburutegian edo bekadunen gelan. Gainera, liburuzainari esker gertatu zen hori, itsasgizon misterioitsuaren istorioa aitzakia.

Negu beltzeko arratsalde hotz bat zen. Kafetegiko barran zeuden, batak bestea ezagutu gabe artean, barrako mutilak noiz jaramon egingo, liburuzaina hizketan hasi zitzaieanean. Hark ezagutzen zituen jada lau bekadun berriak. Orduan konstatu zien liburuzainak istorio harrigarria, eta une hartan sortu zen lau lagunen arteko adiskidetasuna.

Armolea kapitaina hainbestetan bezala, liburutegira joan omen zen egun hartan ere, goizean goiz, zoragarria behar zuen bere bildumako beste liburu bat oparitzera. Alabaina, liburuzainaren harridurarako, liburua kaxa zarratu batean zekarren; are gehiago, kaxa gordailuan uzteko baldintza ezarri zuen. Egin-eginean ere, baldintza horren arabera, bera hil arte inork ezin izango zuen liburua gordailuko kaxatik atera, ezta liburutegiko langileek ere.

Horrek guztiorrek oraindik ere misterioitsuago bihurtu zuen Armolea kapitaina. Gizon bakartia eta isila zen. Jatorriz ipaztertara bazen ere, urte dezente zeramatzan Bilbon. Ezkondu ere hiriburura ezkondu zen, baina emaztea arinegi joan zitzaion beste mundura, elkarrekin seme-alabarik izateko aukerarik gabe. Beharbada, jazoera horrek eta marinelen bizimodu gogorak bihurtu zuten gizona hitz gutxiko. Dena den, ikustekoa zen haren itxura eta traza: argala eta gihartsua, azal zurikoa eta altua, ilea nahiz bizarra urdinuak, eta goitik behera soineko beltzez jantzita beti.

Istorio horren berri izan zutenetik, Armolea kapitaina liburutegian sartzen zen bakoitzean, kutxa hartan ezkutatutako liburuan zer ote zegoen idatzita galdetzen zioten euren buruei. Ur-

teek aurrera egin ahala, jakin-mina geroz eta handiagoa zen, eta, azkenik, gertatu beharrekoa geratu zen. Dagoeneko ez zegoen atzera egiterik. Bazekiten kutzak zer ezkututzen zuen. Baina orain eurak ere misterioaren sopikun edo konplize ziren.

-III-

Arratsalde hartan ez zuten kolpe zorririk eman. Orduak egin zituzten kafetegiko mahairik zokoratuenean. Erdi-marmarean, erdi-eztabaidan aritu ziren, eskuizkribuarekin zer egin behar zuten adostu nahian.

– Ederra egin dugu. Bladi zuk duzu errua, zuk berotu gaitu-zu-eta kutxa madarikatu hori zabaltzera. Ea orain zer egin behar dugun guk eskuizkribuarekin –esan zuen Beñatek, mahai gainean utzita zituen liburu batzuen gainean kolpe bat eman ondoren.

– Beno, ez da horrenbesterako. Ez geneukan bakerik hor barruan zer zegoen jakin arte, ezta? –Malenek, nolabait Bladi defendatu nahian.

– Hala da. Malenek arrazoi osoa du. Baina orain badugu zeregina. Eskuizkribuan aipatzen den tokia non dagoen jakin behar dugu. Ez al zaizue iruditzen?

– Baina, baina... zu guztiz zoratuta zaude. Ala ez didazu esango mezu hori sinesten duzunik... zer, hala bada... –Beñatek.

– Hala bada zer? Hasian hasi, gai honetan amaieraraino iritsi behar dugu. Zer diozu zuk, Txomin? –ordura arte txintik esan gabe zegoen Txomini begira, Beñatek.

– Nik zer esango dizut, bada. Hau guztiau oso arraroa da. Oso arraroa –buruarekin ezetz esaten zuen bitartean, Txominnek.

– Oilo batzuk, memelo batzuk zarete zuek, hori da benetan zaretena –lagunak probokatu nahian Bladik.

– Begiratu Bladi, badakizu zer egin behar dugun? Bada, nik esango dizut. Zubiko jaiegunak igaro ondoren, hau da, gaur ostirala bada, asteazkenean, Gillermo liburuzainarengana joan, hari egin duguna kontatu eta kito. Besterik gabe –Beñatek, bere onetik aterata, ernegatuta.

– Jakina Gillermorengana joango garena, baina informazio bila mutil, informazio bila. Istorio hau ezin da horrela bukatu, ezta pentsatu ere. Nahi duena datorrela nirekin, ni neu joango naiz-eta –Bladik ere gogor erantzunez, temati.

– Ondo iruditzen zait. Ni ere zurekin joango naiz, eta zuek biok ere etorri beharko zinatekete, tartean baitzaudete –Malenek.

– Arrazoi duzue, Armolea kapitainari buruz zerbait gehiago jakin behar dugu, edozertan hasi baino lehenago –Txominek, burua makurtuta, bere ebakiari begira.

– Zuekin ezin da. Ez dakit nola, baina beti zuek nahi duzuen egiten amaitzen dugu. Ez dago eskubiderik –Beñatek, amore emanda.

Kafetegiko argiak itzaltzen hasi eta zarratzera zihoazela esan zietenean bukatu zuten eztabaida luzea. Hurrengo astean egoera konpontzeko itxaropenarekin etxeratu ziren.

-IV-

Liburutegira sartu orduko, Gillermo arraro zamar zebilela konturatu ziren. Urduri jarri ziren lau lagunak, harrapatu zituztelakoan. Halaber, keinuka hasi zitzaien, liburutegi barruko gela batean sartzeko esan nahian.

– Arratsalde on, Gillermo. Zer gertatzen da? –Malenek, irribarretsu.

– Ixo! Baxuago hitz egin ezazue, eta entzun, entzun zer gertatu den. Gogoratzen al zarete Armolea kapitainarekin? Bada, notarioaren gutun bat jaso dugu gaur goizean, haren heriotzaren berri emanez. Larunbat goizean zendu zen...

– Eta? Zer gehiago esaten zen gutun horretan? –Beñatek, Gillermori azaldu beharrekoak azaltzeko denborarik eman gabe.

– Armolearen liburu guztiak dohain emango dizkigutela. Hori dio notarioak. Baina badago gehiago ere. Orobat, gogorazten zaigu, gordailuan utzitako kaxa zabaldu ahal dugula, bere garaian ezarri zigun baldintza bete delako.

Hitzok entzun zituztenean, elkarri begiratu zioten, zer esan jakin barik. Mutututa geratu ziren. Gillermok, ordea, hitz egiten jarraitu zuen.

– Eta ez dizuet onena kontatu. Kutxa gaur goizean bertan zabaldu dugu... Liburu ederra aurkitu dugu barruan, irudiak eta dena ditu. Aspaldikoa da, XVIII. mendekoa. Beraz, laster, katalogatu eta liburu historikoen sailera eramango dugu.

Ezin zuten sinetsi entzuten ari zirena. Egun bat lehenago, liburu hartan ez zegoen ezer idatzirik. Nola zitekeen egun bat geroago entzuten ari zirena egia izatea?

Malenek hautsi zuen, azkenean, ikerlari gazteen isiltasuna.

– Eta orain, ba al dugu liburu hori ikusterik?

Berehala, Bladi gehitu zitzaion proposamen horri.

– Azal-azaletik aztertzeko ez bada ere, utz iezaguzu liburu hori ikusten, mesedez.

Txomin eta Beñat artean ez ziren gai ezer esateko; aho zabalik zeuden.

Gillermok, alboetara begiratu, eta ondoko gelara joateko esan zien, hatz erakuslearekin isilik egoteko keinua egiten zien bitartean.

Gelan sartu eta berehala ikusi zuten liburua, mahai luzearen gainean. Itxuraz behintzat, aurreko eguneko liburu bera zirudien. Usaina ere bera zen, gogorra, animalia-larruarena.

Gillermok liburua kontu handiz zabaldu zuen. Lehenengo orrian egilearen izena eta argitaratze-data irakur zitezkeen: Bartholomé de Armolea, 1715.

Lau ikerlariak inolako azalpenik ez zioten aurkitzen gertatutakoari, baina begi bistan zuten liburu aurreko egunean hutsik zegoen bera zen, aldaketa nabarmenarekin: lehenengo orritik azkeneraino letra handiz eta dotorez idatzita zegoen, eta, han-hemenka, irudiz apainduta. Gillermo erabat pozik zegoen; liburu berri horrek zeresan handia eman behar zuela zioen behin eta berriz. Urre gorritzko bitxia ei zen.

Zinez, lau ikertzaileentzat, zeresana baino zerbait gehiago sortu zuen liburuak. Kosta ahala kosta ikertzen jarraitu behar zuten. Lehenengo eta behin, Bartholomé de Armolea nor zen jakin behar zuten. Nahitaez, hortik abiatu behar zuten, liburuaren eta eskuizkribuaren artean izan zitekeen loturaren bat bilatzeko. Aitzitik, arazo bat zuten: liburu ezin izango zuten liburutegitik inoiz atera, ezta haren fotokopiarik egin ere. Arian ere, liburu historikoen saileko aleek babes berezia zuten. Horrez gain, liburuaren katalogazio-prozesuak bi aste iraungo zuen, gutxienez. Behin liburu behar bezala katalogatuta, ordea, neurri bereziki bada ere, liburu patxadaz irakurtzeko aukera izango zuten, bai eta bertan jasotakoa aztertzeko ere, hala behar izanez gero. Jakina, hori guztiori, bestelako sorpresarik izan ezean, ze ordura arteko gertakizunek ez zuten inolako arrazoi edo justifikazio zientifikorik. Gertatzen ari zitzaiena sinesten hasi beharko ziren.

-V-

Azkenean, hilabete luze igaro zen, liburu historikoen sailean kontsulta egiteko aukera izan zuten arte. Benetan luze egin zitzaien hilabetea.

Gillermok uste zuenaren kontra, inor gutxi hurreratu zen liburutegira, erre gorritzko bitxiarengatik galdezka. Horrek bazu bere abantaila. Horrek esan nahi zuen eurek bakarrik aztertuko zutela liburu, hots, inork ez ziela enbarazurik egingo.

Liburu aztertzeko txandak antolatu zituzten. Modu horretara, bakoitza liburuaren zati batez bakarrik arduratuko zen, euren eguneroko zereginak albo batera utzi beharrik gabe.

Liburua aztertzeari ekin ziotenean, gauzak argitzen zihoazela pentsatu zuten. Ezin zuten ukatu, ordea, lehenengo egunean itzalezko nahaste-borrastea ez zutenik. Hurrean ere, liburuak atal desberdinak zituen.

Atal horietatik lehenengoan, biografia antzeko datu batzuei esker, Bartholomé de Armolea nor zen argitu zuten. Zantzu guztien arabera, zendu berri zen Armolea kapitainaren edo gizon bakartiaren aurrekoren bat behar zuen. Horrenbestez, litekeena zen liburua belaunaldiz belaunaldi familiako kideen artean igaro izana.

Bada, Bartholomé de Armolea ogibidez itsas kapitaina izan arren, 1711n Ondarroako alkate izendatu zuten. Hain justu ere, alkate egon zen urteko pasadizo bat oso interesgarria iruditu zitzaien.

Gosete handiko urteak omen ziren, herrian nahiz inguruko probintzietan ale eskasia zegoelako. Hori zela eta, 1711ko urtarrilaren 21ean, ondo hornitutako txalupa batean itsasoratu ziren ondarrutarrak Armolearen aginduetara, kortsario gisa. Milia batzuk egin ostean, Britainiatik Donibane Lohizunera gariz beteta zihoen ontzi britainiar bat harrapatu zuten. Ontziko maisuak bakean uzteko erregutu arren, ondarrutarrek ez zioten jaramonik egin, eta ontzia Ondarroako porturaino eraman zuten, garia herritarren artean eta Berriatu elizateko biztanleen artean banatzeko. Edonola ere, britainiarrei euren ekintzaren helburua azaldu eta gero, dirua eta burdina eman zizkieten, eragindako kalteen ordainean.

Istorio horrek, antza, euskal kortsarioen ibileretan murgildu behar zituen lau ikerlariak.

-VI-

Hasierako datu interesgarriak gorabehera, datu aspergarrien garaia ere heldu zen. Bata bestearen atzetik, notarioen protokoloak, auzi zibilen gaineko informazioa, eta era guztietako

agiriak zeuden. Sarritan, horiek guztiak ulertezinak ziren gainera. Egun batzuetan alferrikako lana egiten zebiltzala pentsatu arren, ezari-ezarian aurrera zihoazen.

Horrela, liburuaz aztertzeari ekin ziotenetik hiru hilabete inguru igaro zirenean, Txomin berri interesgarri batekin hurreratu zitzaizen besteei, bekadunen gelan.

– Zerbait aurkitu dut. Zerbait berria, berriro kortsarioekin zerikusia duena.

– Konta egiguzu, bada, zer dakarzun –Beñatek.

– Liburuaren erdi parera heldu naizenean, berriro ere edozenbat kontakizun eta pasadizo aurkitu ditut.

– Txarto ez banabil, liburuaren erdi parean esan duzu, ezta? –Bladik.

– Bai, liburuaren erdi parean.

– Ez al duzue gogoratzen ala? Liburuaren erdi parean aurkitu genuen eskuizkribu misteriotsua ere –Bladik.

– Arrazoi duzu –Malenek eta Beñatek aldi berean.

– Zer ari zarete pentsatzen? Zantzuren bat bila genezakeela pasarte horietan? –Txominek.

– Zergatik ez? –Malenek.

– Era bakarra dago hori hala den jakiteko. Ikus dezagun Txominek aztertutakoa –Bladik.

Ez zebiltzan oker. Txominek aztertutako pasarteetan informazio ugari besteko interesgarria zegoen. Egunak aurrera egin ahala, gainera, geoz eta informazio gehiago ari ziren ateratzen.

Bartholomé de Armolea kapitainak kortsarioei buruz jasotako kontakizun guztietarik bat zen deigarria. Hain justu ere, kontakizun horrek beste Armolea bati egiten zion erreferentzia, alegia, Damian de Armolea kapitainari.

Kontakizunaren arabera, garai hartan, Damian eta beste kortsario batzuk Nuestra Señora de la Soledad bergantinean itsasoratzen ziren Herbehereetako edo Irlandako merkataritza-ontziei eraso egiteko asmoarekin.

Halatan, 1626ko abuztuan, Ondarroako portutik irten, eta Irlandako ontzi bati eraso egin ei zioten, itsas zabalean. Kasu horretan, aldiz, gauzak ez zitzaizkien hain ondo atera. Lehorrerantz zetozela, gerra-ontzi ingeles batek jarraitu omen zien, eta, nahikoa hurreratu zitzairenean, baita kanoiekin eraso egin ere.

Gerra-ontziari burla egin eta libre geratzea lortu zuten, baina lehorretik gertu zeudela, kanoikaden ondorioz jasandako kalteei, bat-batean sortutako galarrena gehitu zitzairen. Horrenbeste ezbeharren ondorioz, estu-estu zihuan Nuestra Señora de la Soledad hondoratzen hasi zen. Tripulazioko kideak bateletan sartu eta lehorrerantz egiten ahalegindu ziren, baina inor ez zen salbatu antza.

Biharamunean, hego-haize edo erreka-haizeak itsasoa bare utzi ondoren, Lekeitioko beste bergantín batek gorpu batzuk aurkitu zituen. Era berean, Ondarroako txalupa batek artean bizitzari eusteko ahaleginetan zebilen gizon bat salbatu zuen, baina lehorreratu orduko, hura ere zendu omen zen. Justu-justuan, gertatu zitzaiena kontatzeko astia baino ez zuen izan koi-taduak.

Seguru asko, hark esandakoari esker jaso zuen Bartholomé de Armoleak istorio hori, bere aurrekoaren omenez.

Tripulazioko gainerako kideak, eta euren artean Damian de Armolea kapitaina, behin betiko desagertu ziren, ehorzketarik egiteko aukerarik gabe. Hitz gutxitan esanda, itsasoak irentsi zituen, edo hori zen, behinik behin, herrian zabaldu zena.

Zer ebatsi ote zioten irlandarrei ere ezin jakin. Herri-tradizioaren ariora, urrezko txanponak lapurtu omen zizkioten. Gainera, herrian eta inguruetan bestelako uste bat ere hedatu zen. Bada, ez omen zen estreinako aldia, urrezko txanponak

lapurtzen zituztena. Areago, Elizburu auzoan, Latro-zulo deritzon iturritik gertu ezkutatuta omen zituzten txanponok. Beraz, zorioneko pertsonaren batek txanponok bilatu ezean, ezin zen jakin uste hori egiazkoa ala gezurrezkoa zen.

-VII-

Txominek aztertutako informazioaren berri izan eta berehala, urrezko txanponez osatutako altxorrarekin amesten hasi ziren Beñat, Malen, Beñat eta baita Txomin bera ere.

Bete-betean sinesten hasita zeuden, eskuizkribuan aipatzen zen tokia eta altxorra ezkutatuta zegoen tokia bat zirena. Hortaz, Elizburu auzoa bilatu behar zuten, kostaldeko punturen batean.

Edonola ere, urrats hori eman aurretik, badaezpada, informazio gehiago bilatzeko aukera baztertu gabe, liburuia bukatzeko falta zitzaizkien atalak irakurtzea erabaki zuten.

Emozioaren emozioz, liburuaren osterantzeko atalak bizpahiru astetan irakurri zituzten. Aldi berean, liburu osoan zehar, han-hemenka, baina, batez ere, bazterretan, jasotako irudi piloia ere aztertu zuten.

Irudiok sakon aztertuz, konturatu ziren hiru zirela behin eta berriro agertzen ziren osagaiak: zehaztu ezineko landare mota bat, iturri antzeko zerbait eta ilargi bete. Irudiok era desberdinetara agertzen ziren, banaka zein elkarrekin. Dena dela, eta, berriro ere, liburuaren erdi parean, orrialde baten beheko aldean, errepresentazio txiki bat ikus zitekeen, non ilargi beteak iturria argitzen zuen, eta iturriaren inguruan jende multzo bat ikusten zen, landareak eskuetan zituztela.

Hortik guztitik, ondorio garbia atera zuten lau lagunek: irudiko iturria Elizburu auzoko Latro-zulo iturria izan zitekeen. Hala eta guztiz ere, erantzunik gabe geratzen ziren hainbat galdera: zein zen iturriaren inguruan zegoen jende multzoaren esanahia? Zertan ibiliko ote ziren? Zein landare mota zen libu-

ruan behin eta berriro agertzen zena, eta iturri inguruko pertsonen eskuetan zutena? Zertarako?

-VIII-

Bizkaia eta Gipuzkoako kostaldeko auzo guztiak zein ziren ikusi ondoren, Berriatuko lurretan aurkitu zuten Elizburu. Horregatik, larunbat goizez hara joateko geratu ziren.

Eguraldia lagun, udaberri bete-betean, goizeko hamarrak inguruan heldu ziren Elizburura. Parean aurkitutako lehenengo baserrian galdetzea erabaki zuten.

– Egun on, ba al dago norbait? –Bladik.

Txakurrak zaunkaka zebiltzan bitartean, adineko andre bat agertu zen atarian.

– Egun on zuei ere, gazteok. Zerk dakarkizue bada? –erantzun zien andreak.

– Ikerketa bat egiten ari gara, eta laguntza eske gatoz. Agian zuk lagun diezagukezu, ez dakit... –pena aurpegia jarritz, Malenek.

– Ea bada, zer diozuen –andreak, laguntzeko prest zegoela agertuz.

Andreak baserriko atea zabaldu zizkien, eta eskatzeraino eramane. Biztuta zeukan irratia itzali eta luze aritu zen bateko eta besteko azalpenak ematen, Malenek, Bladik, Beñatek eta Txominek esandakoari erantzunez.

Bien bitartean, Bladik entzundako gutzia koadernoan jaso zuen. Itzelezko aurrerapausoa ematen ari ziren. Han entzundakoaren arabera, ez zeukaten zertan beste baserri batzuetara joan. Den denak logika zuen, aspaldiko partez.

Elizburu auzoan bazegoen Latro-zulo izeneko iturri bat, kostaldetik gertu. Mapa edo plano antzeko bat ere marraztu zien, haren kokaleku zehatza eta hara nola heldu azalduz. Haatik,

emakumeak ez zekien iturriaren izenaren jatorria zein zen. La-trua egurra zulatzeko lanabesa zela besterik ez zien esan. Baina ederto asko zekien urrezko txanpon ezkutuen istorioa.

Zuek ere ez al zarete ibiliko kortsarioek ezkutatutako urrezko txanponen bila, ezta? barre eginez galdetu zien.

Ez ei ziren iturri hartaz galdezka baserrian atea jotzen zuten lehenak. Gutxi gorabehera, hogei urte lehenago ere, Ipazterreko kapitain bat ibili omen zen zeregin horietan. Hark ere interes handia ei zeukan gai hartan.

Hori entzutean, lau lagunei gizon bakartiaren irudia etorri zitzaizen burura.

– Beraz, hura ere nolabaiteko aztarnen bila ibilitakoa zen. Benetan interesgarria –esan zion belarrira Bladik Txomini.

Bestalde, andrearen azalpenek erabat ziurtatu zuten Txominek bere kontura egindako ikerketa etimologikoa.

Andrearen istorioaren arabera, antzinako denboretan, kortsario ugari Ondarroa eta Lekeitio bitartean dagoen Portu Txiki izeneko kalan lehorreratzten ziren. Handik Portu-errekatik gora egin eta Latro-zulo iturriko bidera ateratzen omen ziren, inguruko herrietara joan ahal izateko. Elezahar baten arabera, behin batean, kortsario batzuek urrezko txanponak ezkutatu ei zituzten paraje hartan.

Egin-eginean ere, Txominek frogatua zuen Latro-zulo izenak ez zuela inolako zerikusirik arotzen latruarekin. Latro-zulo latineko latro-latronisetik zetorren, eta lapurren tokia esan nahi zuen. Hori berori ondorioztatu zuen, Juan Antonio Mogel idazlearen *Cristau Eracastle Euscalduna* irakurtzean ere.

Lan horren hirugarren zatian, *Eracaste XVII.a* delakoan, *Go-rroto gaizto, ta bere ezagugarrien gañean* hitz egitean, Jerusalemgo elizan Jesusek izandako haserrealdiaren berri ematen da. Haserrealdi horretan, besteak beste, Jesusek hau esan zuen: *Iz-cribaturik dago; nere echea escaari lecua da, ta zuec eguin dezute latro-zulo edo lapurtegi bat.*

Labur esanda, argi zegoen kortsarioak paraje hartatik ibiltzen zirena, eta horregatik jarri ziotela Latro-zulo izena iturriari.

Horrez gain, andreak esan zien, ohitura zahar baten arabera, Mendexa, Amoroto eta Berriatuko alkateak urtean behin Elizburun biltzen zirela iragan denboretan. Aurrekoei entzundakoaren arabera, ekaineko egunen batean biltzen ote ziren susmoa zeukan. Gaua egin arte, erromeria egoten omen zen gero, herri horietako jende ugari joaten baitzen bertara.

Horren gaineko interpretazio bat ere egin zuten. Liburuko irudian, iturriaren inguruan agertzen zen jende multzoa zerbait ospatzen egongo zen. Horren ondorio izan zitekeen gerogarrenean ere hiru herrietako jendea Elizburun biltzeko ohitura.

Alabaina, andreak ez zuen jakin irudian agertzen zen landarearen esangura azaltzen; izan ere, landare hori edozein landare-mota izan zitekeen. Hori zen argitu gabe geratzen zitzaizen gauza bakarra.

-IX-

Andrearen ekarpena funtsezkoa izan zen ikerketarako. Pozik zeuden ordura artekoaz, baina premiazkoa zen azken zailantza argitzea.

Autoan sartu eta Elizburutik Bilborantz doan errepide nazionalera jaitsi ziren. Errepidean kilometro eskas bat egin eta bide-hegalean zegoen taberna-jatetxe batean gelditu ziren, ha maiketakoa egiteko.

Zer izango da ba? Tabernariak.

Lau txorizo-pintxo, hiru sagardo eta baso bete ur ?Beñatek.

Eskatutakoa atera bitartean, mahai batean jesarri ziren.

Beno, listo dago, hemen duzue dena ?tabernariak, pintxoak eta edariak mahai gainean uzten zituela.

Gauzatxo bat. Paraje hau ere Elizburu auzoa al da? galdetu zuen Malenek.

Ez, hau Milloi da, eta Elizburu ere Milloi da ?erantzun zuen barre eginez tabernariak.

Milloi? galdetu zuen ostera ere Malenek.

Beno, hobeto esanda, Merelludi, hau da, mihilu asko dagoen tokia ?erantzun zion tabernariak.

Badakit, badakit, akabo gure zalantza! Mihilua da irudiko landarea! Mihilua! deiadarka hasi zen Txomin, zoro baten pare, tabernariak harridura-aurpegiarekin begiratzen zion bitartean.

Mihilua? galdetu zuten aldi berean Beñatek, Malenek eta Bladik.

-X-

Ekainean sartzeko gutxi falta zen, eta urte horretan ekainaren azken ostiralean zetorren ilargi betea. Aukera hori ezin zen alferrik pasatzen utzi. Latro-zulo iturrira joan behar zuten, han zer gertatzen zen ikustera. Beste hitz batzuekin esanda, liburu-ko irudian jasotako errepresentazioa hala edo hola errepikatu behar zuten.

Heldu zen ekaineko azken ostirala, eta iluntze aldera abiatu ziren Latro-zulora. Afari-merienda ere bertan egin zuten. Zerua garbi zegoen. Printzipioz, inguruabar hori ere lagun zuten. Gau hartan, ilargiak polito argituko zuen iturria.

Bidezidor baten bazterrean zegoen iturria. Egia esan, ez zen gauza handia, mendian edo basoan sarri aurki daitezkeen horietako bat, besterik gabe. Bidezidorretik metro eskas batzuetara zegoen, aldapa txiki bat igo eta gero.

Ogitartekoak jaten zituzten bitartean, nolabaiteko tentsioa sumatzen hasi ziren, emozioaren eta jakin-minaren tentsioa, alegia. Motxilak albo batean utzi zituzten, ikerketarako baliagari izan zitekeen edozenbat gauzaz beteta. Bideo-kamera, linternak, boligrafoak eta papera, eta eurentzat hain garrantzitsua zen eskuizkribu misteriotsua, nahiz eta piperrik ere ez ulertu.

Eskuizkribuko mezua irakurtzen zebilen Bladi, lizar handi baten azpian.

– Mezu hau guztiz arraroa da gero. Gezurra dirudi halako hitz korapilatsuak erabiltzea, altxor baten ezkutalekua non dagoen adierazteko.

– Hitz korapilatsuak noski. Horrexegatik ibili zen gizon barkaria ere galduta, noraezean, han eta hemen galdezka, zantzuren baten bila –Txominek.

– Horrek esan nahi du, hark ere gauza handirik ez zekiela, nahiz eta Armoleatarra izan eta Bartholomé de Armolearen ondorengo –Beñatek.

– Eta zer uste duzue Bartholomé de Armoleaz? Ez al zuen hark altxorra bilatuko? –Malenen hitzek zalantzan jartzen zuten ia dena.

– Agian bai, agian ez. Bere liburuan edo memorieta ez digu ezer esaten. Beharbada, bera ere Damian de Armoleak utzitako zantzuen atzetik ibili zen, eta, ezer ez aurkitzean, ondorengoei agerian utzi nahi izan zien berak egindako bidea. Ez al duzue pentsatzen? –Konbentzimendu osoz, Bladik.

– Bai, hipotesi horrek badauka zentzua bai –Txominek.

– Gu ez gara Armoleatarrak, baina guk bai, guk aurkituko dugu zerbait, ziur nago, ikusiko duzue, ilargia atera eta iturria argitzearekin batera guk mihiluak eskuetan hartzen ditugunean, orduan zerbait gertatuko da. Derrigorrez! –ia-ia estasi egoeran, Malenek.

-XI-

Gauerdia heldu zenean, ilargi bete zuria Latro-zuloko ingurua argitzen hasi zen. Ezari-ezarian, argitasuna iluntasunari lekua kentzen zihoan, zuhaitz-adarren eta -hostoen tartetik indartsu nagusituz.

Iturria bete-betea argitzeko segundo eskas batzuk falta zirela, lau lagunek mihiluak hartu zituzten eskuetan, liburuko irudian jasotako errepresentazioa errepikatu ahal izateko.

Ilargiak iturritik ateratako ura biziki argitu zuenean, lau lagunek mihiluak jaso zituzten. Orduan, konturatu gabe, gerizpea egin zioten ilargiari, eta, berehalakoan, iturriko ura esne bihurtu zen.

– Esnea da, esnea da!! Ene, hau da hau ikustekoa... –Bladik.

– Hala da bai, hala da, eta begiratu, bidezidorrera doa, bidezidorrera –Ikusten zutena ezin sinetsita, Beñatek.

Malen eta Txominek buruarekin baietz esaten zioten, lagunek esandako guztiari, hitzik esan gabe.

Esne zuri-zuriak bidezidorra zeharkatu eta beherantz egin zuen, pinuditik barrena, beste bidezidor antzeko bat zabalduz.

– Jarrai diezaiogun esnari, hori badoa-eta nonbaitera –esan zuen dagoeneko lasterka hasita zegoen Bladik.

Bitan pentsatu gabe, haren atzetik abiatu ziren enparauak ere. Esnea, astiro-astiro, ezkerrean zein eskuinera eginez, gelditu barik zihoen beherantz, bidea egiten.

Errekatxo txiki baten parera heldu zenean, zuzen jarraitu zuen haren aldamenetik, modu paraleloan.

Beherantz eta beherantz, azkenean itsasoa ikusi zuten aurrez aurre, bare-bare, ilargiaren eta izarren ispilu bailitzan.

– Itsasoraino eramango gaitu! –adierazi zuen Txominek, emozioak eragindako arnasestarekin.

Eta ez zebilen oker. Haitzetaraino heldu ziren, hau da, azken lur-muturreraino. Hala ere, denen ezusterako, esnea hantxe gelditu zen, haitzen artean zegoen sartune txiki baten aurrean.

Halako batean, arbelezko haitzak mugitzen hasi ziren, eta, badaezpada, ikaraz, makurtzea erabaki zuten. Harri koskorrak

amildu ziren, eta danbateko batzuk entzun ondoren, hasierako sartune txikia zabaltzen hasi zen.

Denbora gutxian, haitzulo batek izan ohi duen sarrera baten antzeko bihurtu zen sartunea.

Hori ikustean, eta berriro isiltasuna nagusitzean, lau lagunak barrura sartu ziren, han zer ezkututzen zen jakiteko.

-XII-

Linternak biztu eta aurrerantz egin zuten. Haitzuloa handia zen, eta inolako zailtasunik gabea, oinez egiteko. Sartu eta lasterrera, eskuma aldeko hormen artetik, ilargiaren antzeko argitasuna zetorrela ohartu ziren.

Ordurako beldur guztiak galduta zituztenez, argitasun horretarantz abiatu ziren, azkar abiatu ere.

Ia-ia harri bihurtuta geratu ziren, ordea, barruan zegoena ikustean.

Haitzuloaren gela hura ur kresalez beteta zegoen, eta, erdi-erdian, haitz baten gainean jesarrita, neska gazte bat, eurei begira-begira.

Neskari gerritik behera begiratu ziotenean, aldiz, neskarraina zela konturatu ziren, eta, orduan, izaki berezi hura hizketan hasi zitzaien.

– Ongi etorriak mundu honetara –azkenean lortu duzue, aspaldian inork lortzen ez zuena. Hemen zaudete, beste errealitatean.

Hitzok entzutean, eskuizkribuan idatzitako mezua etorri zitzaien burura. Zehatzago, errealitatetik haratago beste dimentsio bat zegoela zioen zatia.

Euren harridurarako, neskarraina bere burua orrazten hasi zen. Horretarako, arrain-hezurrez egindako orrazi bat hartu zuen eskumako eskuan, eta ispilu bat ezkerrekoan.

Une batez isilik egon eta gero, ostera ere hizketan hasi zen.

– Beno, orain baduzue nire berri, bai eta mundu honen berri ere. Beraz, hemendik alde egiteko ordua iritsi zaizue. Baina ezin zarete edonola irten. Ondo entzun, bi aukera emango dizkizuet-eta. Hurrengoan ere hona etortzeko aukera izan dezazuen, atzeraka atera beharko duzue, niri begira. Aitzitik, niri jaramonik egin ezean, eta bizkarra eman ez ateratzen bazarete, betirako geratuko zarete mundu honetan. Esan beharrekoak esan dizkizuet, eta orain zuena da azken erabakia...

F. Javier Arrieta Idiakez